

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-2598

AGINDUA, 2001eko apirilaren 25ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2000ko ekainaren 8ko Agindua egokitzen duena 2001ean aplikatu ahal izateko. Agindu horren bidez, unibertsitatez kanpoko zentro pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia egiten da, aipatu zentroetako langileek prestakuntza-jarduerak burutu ditzaten.

Irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak –Euskadiko aurrekontuen erregimenari buruzko indarreko xedapenen testu bateratua onartzen duenak– IX. Tituluan ezarritakoaren babesean, abenduaren 26ko 275/2000 Dekretua eman zen. Dekretu horren indarrez, luzatu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren konturako laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituzten zenbait xedapenen indarraldia. Eta, horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak, bere sailek eta dagozkien erakunde autonomiadunek aurrekontuen epeak eta baldintzak egokitu ahal izango dituzte, 2001. urtean aplikatu ahal izateko.

2000. ekitaldian, urte bereko ekainaren 8ko Agindua eman zen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Agindu horren bidez, 2000/2001 ikasurtean unibertsitatez kanpoko zentro pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen, aipatu zentroetako langileek prestakuntza-jarduerak burutu ditzaten, eta agindua 2000ko ekainaren 13ko EHAA-n, 111. zenbakian, argitaratu zen. Beraz, zilegi da epeak eta baldintzak egokitzea, agindu hori 2001. ekitaldian aplikatu ahal izateko.

Hori dela eta,

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

2000ko ekainaren 8ko Aginduak —unibertsitatez kanpoko zentro pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia egiten duenak aipatu zentroetako langileek prestakuntza-jarduerak burutu ditzaten— arautzen duen laguntza-deialdirako eskabideak aurkezteko epea, 2001. urtean, hilabetekoa izango da, agindu hau EHAA-n argitaratu eta biharamundetik kontatzen hasita.

Bigarren artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Nº-2598

ORDEN de 25 de abril de 2001, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se adapta, para su aplicación durante 2001, la Orden de 8 de junio de 2000, del mismo Órgano, por la que se convocan subvenciones a las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con centros privados de enseñanza no universitaria para la realización de actividades de formación del personal docente de dichos centros.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 275/2000, de 26 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2001.

En el ejercicio 2000, se dictó la Orden de 8 de junio de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la que se convocaban subvenciones a las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con Centros Privados de enseñanza no universitaria para la realización de Actividades de Formación del personal docente de dichos centros a desarrollar durante el curso 2000-2001, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm.111 de 13 de junio de 2000, por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Orden durante el ejercicio 2001.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo primero.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la Convocatoria de ayudas establecida por la Orden de 8 de junio de 2000, por la que se convocaban subvenciones a las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con Centros Privados de enseñanza no universitaria para la realización de Actividades de Formación del personal docente de dichos centros, en el ejercicio 2001 será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País vasco.

Artículo segundo.– Solicitudes y documentación a presentar.

Deialdi honetarako eskabideak eta agiriak, 2000ko ekainaren 8ko Aginduaren 5. artikuluan aipatzen direnak, hezkuntzako ordezkartzetan aurkeztu ahal izango dira, baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen, 38.4 artikuluan aipatutako edozein egoitzatan ere.

Agiriak 2000ko ekainaren 8ko Aginduaren 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztu beharko dira.

Hirugarren artikulua.— Baliabide ekonomikoak.

Agindu honetan aipatzen diren diru-laguntzetarako, 2001. urte honetan, berrehun eta hamar milioi pezeta (210.000.000 PTA) erabiliko dira (1.262.125,42 euro), EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako diru-partidaren kontura.

Laugarren artikulua.— Epeak egokitzea.

2000ko ekainaren 8ko Aginduan eta haren eranskinetan 2000/2001 ikasturteari eta 2000. urteari egiten zaizkion erreferentziak 2001/2002 ikasturteari eta 2001. urteari dagozkio agindu honetan.

Egindako eskariei ebazpena eman eta interesatuei hauek jakinarazteko prozesuak gehienez sei hilabete iraungo du, Agindu hau indarrean sartuko den egunetik kontatzen hasita.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Edonorentzat jakingarri izan eta interesdunei erabilerazteko, agindu honekin batera doa 2000ko ekainaren 8ko Aginduak ezarritako araubide orokorri 2001erako aurreikuspenak erantsi ondoren osatutako testua eta eranskinak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Administrazio bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, agindu hau EHAA-n argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita hilabete epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute EAEko Epaitegi Nagusian, administrazioarekiko auzietako salan, agindua aldizkari berean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabete epean.

Bigarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko apirilaren 25a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU

A los efectos de la presente convocatoria, la solicitud y documentación a que se refiere el artículo 5 de la Orden de 8 de junio de 2000, podrá presentarse en las Delegaciones de Educación o en cualquiera de las dependencias previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las administraciones Públicas y del Procedimiento administrativo Común.

Dicha documentación habrá de presentarse según se determina en el artículo 6.2 de la Orden de 8 de junio de 2000.

Artículo tercero.— Recursos Económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, durante el corriente ejercicio 2001, la cantidad de doscientos diez millones de pesetas (210.000.000) (1.262.125,42 Euros), con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

Artículo cuarto.— Adaptación de plazos.

Al objeto de la presente convocatoria, las referencias que en la Orden de 8 de junio 2000 y sus anexos se efectúan al curso 2000/2001 y al año 2000, han de entenderse efectuadas respectivamente al curso 2001/2002 y al año 2001.

El plazo máximo de duración del procedimiento para la resolución de las solicitudes presentadas y su notificación a los interesados será de seis meses a contar desde la entrada en vigor de la presente Orden.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Para general conocimiento y facilitar el uso por los posibles interesados, se incorpora como Anexo a la presente Orden, el texto Y anexos resultantes de refundir las previsiones efectuadas para el ejercicio 2001, al régimen general establecido por la Orden de 8 de junio de 2000.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.— La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de abril de 2001.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

ERANSKINA

2000ko ekainaren 8ko Aginduaren artikulatuaren testu egokitua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Agindu horren bidez, unibertsitatez kanpoko zentro pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia egiten da, aipatu zentroetako langileek prestakuntza-jarduerak burutu ditzaten.

I.KAPITULUA

DEIALDIAREN HELBURUA ETA BETEBEHARRAK

1. artikulua.— Deialdi honen xedea unibertsitatez kanpoko zentro pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei diru-laguntzak ematea da, 2001-2002 ikasturtean aipatu zentroetako langileek prestakuntza jarduerak burutu ditzaten. Lehenetsuna izango dute unibertsitatez kanpoko hezkuntzan indarrean dauden curriculumen ondoriozko gaitzei buruzko jarduerak. Zenbatekoa gehienez 210.000.000 PTAKoa (1.262.145,42 euro) izango da.

2. artikulua.— Deialdi honetan parte hartzen duten federazio edo elkarteek ezingo dute izaera bereko diru-laguntza edo laguntzen markoan hasitako itzulketa edo zehapenezko inolako prozedurarik eduki konpontzeke, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasunaren Printzipio Arautzailei buruzkoak, eta 698/1991 Dekretuak, abenduaren 17koak, ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.— 1.— Parte hartu ahal izango dute zentro pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio edo elkarte guztiek, zentro horietako irakasleen prestakuntzari dagokionez, bai Estatukoak direnek, bai EAeko zentro pribatuek bakarrik eraturakoak direnek ere. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da artikulua honetako 2. puntuan adierazitako baldintza betetzea. Estatu osokoak direnek egoitza eduki beharko dute Erkidego honetan, nortasun juridiko eta ahalmen nahikoarekin.

2.— Parte hartu ahal izateko, federazio edo elkarte horiek hiru zentro eduki beharko dituzte gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan, eta itunpeko 50 gela edo gehiago.

4. artikulua.— Diru-laguntza hauen xede izango dira Federazio edo Elkarteekin harreman estatutarioa edo erregelamenduzkoa duten zentro horietako menpeko irakasleak trebatzeko jarduerak. Jarduera horiek, gainera, indarrean dauden unibertsitatez kanpoko hezkuntzako egitura eta curriculumen ondoriozko espezializazio edo eguneratzea izango dute helburu, baita Saitetik bertatik sustatutako programak abian jartzea ere.

ANEXO

Texto adaptado del articulado de la Orden de 8 de junio de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por la que se convocan subvenciones a las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con Centros Privados de enseñanza no universitaria para la realización de Actividades de Formación del personal docente de dichos centros

CAPÍTULO I

OBJETO DE LA CONVOCATORIA Y REQUISITOS

Artículo 1.— El objeto de esta convocatoria es subvencionar a Federaciones o Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con Centros Privados para la realización de actividades de formación del personal docente de los mismos durante el curso 2001-2002, preferentemente las relativas a habilitaciones y cualificaciones derivadas de los currículos vigentes en las enseñanzas no universitarias, con un importe máximo de 210.000.000 (1.262.125,42 Euros).

Artículo 2.— Las Federaciones o Asociaciones que participen en esta Convocatoria no se hallarán incurso en procedimiento alguno de reintegro o sanción iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza, de conformidad y en los términos establecidos en la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el decreto 698/1991 de 17 de diciembre.

Artículo 3.— 1.— Podrán participar las Federaciones o Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con Centros Privados en cuanto a formación de su profesorado, tanto de ámbito estatal como las constituidas exclusivamente por centros privados de la CAV, y siempre que cumplan la condición expresada en el punto 2 de este artículo. Las de ámbito estatal deberán contar con sede en esta Comunidad Autónoma con personalidad jurídica y poder bastante.

2.— Para poder participar, las Federaciones o Asociaciones deberán contar con un mínimo de tres centros ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y un número total de aulas concertadas igual o superior a 50.

Artículo 4.— Serán objeto de las subvenciones concedidas las actividades de formación que promuevan una especialización o recualificación del personal docente dependiente de los centros que estén relacionados estatutaria o reglamentariamente con las Federaciones o Asociaciones, y que se deriven de la estructura y currículos de las enseñanzas no universitarias vigentes, así como de la puesta en marcha de los Programas impulsados por el propio Departamento.

II. KAPITULUA ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK

5. artikulua.— 1.— Federazio edo elkarteko legezko ordezkariari dagokio espedienteari hasiera ematea. Horretarako, ondorengo dokumentazio aurkeztu beharko du:

– Federazioko edo elkarteko legezko ordezkariak zizgilatutako eta sinatutako eskaera, Hezkuntza Berritzazeko zuzendariari zuzendua. Ordezkariak diru-laguntza eskatzeko ahalmen nahikoa duela egiaztatu beharko du (I. eranskina).

– Federazio edo elkartearekin harreman estatutarioa edo erregelamenduzkoa duten EAEko zentrozen zerrenda. Bertan, horien kodea zehaztu beharko da.

– Laburpen-fitxa. Bertan, federazio edo elkartearen datuak, eta diru-laguntzaren xede izango diren prestakuntza-jarduerak guztiak jasoko dira (II. eranskina).

– Prestakuntza-jarduerak guztiak buruzko fitxa deskribatzailea (III. eranskina).

– Zinpeko adierazpena, deialdi honetan aipatzen den jarduerak ez duela bestelako laguntzarik jaso adieraziz.

– Zerga-betebeharrak bete direla egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere Ogasun eta Administrazio Publikoko sailburuak 1991ko urriaren 7ko Agindu bidez ezarritakoarekin bat (EHAA, 1991 urriaren 15a).

2.— Zentro batek harreman estatutario edo erregelamenduzkoa badu federazio batekin eta elkarte batekin, edo federazio edo elkarte bat baino gehiagorekin, Agindu honetatik erator daitezkeen helburuetarako, horietako bakar batekin azalduko da lotua. Horretarako, haren legezko ordezkariaren idatzia atxiki beharko da, adostasuna azalduz.

6. artikulua.— 1.— Eskaerak aurkezteko epea hila-betekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

2.— Dokumentazioa —jatorrizkoa eta bi kopia— ondorengo bulegoetan aurkeztu ahal izango da: hezkuntza ordezkariarekin edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako beste edozein bulegotan.

III. KAPITULUA HAUTAKETA ETA EBAZPEN PROZEDURA

7. artikulua.— Diru-laguntzak lehiaketa bidez esleituko dira. Xede horietarako, proposamen bakoitzean diruz lagundu beharreko prestakuntza-jarduerak hautatu aurretik, deialdi honetako eskakizunak betetzen direla egiaztatuko da, eta jarduerak horiek IV. eranskinean ezarritako balorazio teknikorako baremoaren arabera baloratuko dira.

CAPÍTULO II SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

Artículo 5.— 1.— Corresponde iniciar el expediente al representante legal de la Federación o Asociación, con la documentación siguiente:

– Solicitud sellada y firmada por el/la representante legal de la Federación o Asociación, quien deberá acreditar tener poder bastante para solicitar la subvención, dirigida a la Directora de Innovación Educativa. (Anexo I)

– Listado de centros de la CAV relacionados estatutario o reglamentariamente con la Federación o Asociación en el que figure el código de los mismos.

– Ficha resumen de los datos de la Federación o Asociación y de cada una de las actividades de formación para las que se solicita subvención (Anexo II)

– Ficha descriptiva de cada una de las actividades de formación (Anexo III)

– Declaración jurada de no haber recibido ayudas para la actividad que se acoge a la presente convocatoria.

– Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias, de acuerdo con lo establecido en la Orden de 7 de octubre de 1991 del Consejero de Hacienda y Administración Pública (B.O.P.V. de 15 de octubre de 1991).

2.— Si un centro determinado tiene relaciones estatutarias o reglamentarias simultáneamente con una Federación y con una Asociación o con más de una Federación o Asociación, y para los efectos que puedan derivarse de esta Orden, deberá figurar como relacionada con una sola de las mismas, para lo cual deberá adjuntar escrito de conformidad del/de la representante legal del mismo.

Artículo 6.— 1.— El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

2.— La documentación, original y dos copias, se presentará en las Delegaciones de Educación o en cualquiera de las dependencias previstas en el art. 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de 1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

CAPÍTULO III SELECCIÓN Y PROCEDIMIENTO DE RESOLUCIÓN

Artículo 7.— La concesión de subvenciones se realizará mediante el procedimiento de concurso. A estos efectos la selección de las actividades de formación a subvencionar en cada una de las propuestas se realizará, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos de la presente convocatoria, previa valoración de las mismas de acuerdo con el baremo para la valoración técnica que se expresa en el Anexo IV.

8. artikulua.– Aurreko artikuluan aipatutako hautaketa, horretarako sortutako Batzorde batek egingo du. Batzorde hori ondorengo hauek osatuko dute:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak edo esku ematen dion pertsonak, lehendakari gisa jardungo duenak.

- Hezkuntzako ikuskari zentralak.
- Irakasleria Hobetzeko Zerbitzuko buruak.

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak izendatutako hiru teknikaririk. Horietako batek idazkari lanak egingo ditu.

9. artikulua.– Aipatu Batzordeak proposamen bakoitzean diruz lagundu beharreko prestakuntza-jarduerak erabakiko ditu, baita diru-laguntzaren zenbatekoa ere. Horretarako, kontuan eduki beharko dute IV. eranskinean ezarritako baremoa, aurrekontu-mugak eta Agindu honetako 12. eta 13. artikuluetan ezarritako mugak.

10. artikulua.– 1.– Deialdiaren ebazpen-proposamena Hezkuntza sailburuordeari aurkeztu aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen proposamen guztiak egin ahal izango ditu Batzordeak, aurkeztutako proposamenak aldatzeko. Egindako aldaketak betetzeak eta onartzeak diru-laguntzak baldintzatuko dituzte.

11. artikulua.– Hezkuntza sailburuordeari dagokio, Batzordearen proposamenez, deialdi honi buruz erabakitzea, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta ondorengo hiru hilabeteetan.

Behin betiko ebazpena EHAA-n argitaratuko da, eta bertan, emandako diru-laguntzak zehaztuko dira. Ebazpenak ez du administrazio-bidea amaituko, eta gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean. Ezarritako epean ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertu behar da.

IV. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK BANATZEA ETA HARTZAILAEN BETEBEHARRAK

12. artikulua.– Federazio edota elkarte bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbateko osoa, hautatutako jarduera bakoitzarentzat aurkeztutako aurrekontuen batura eginez kalkulatu da, zenbateko horri ordezkapenei dagokien zenbatekoa kendu ondoren, eta betiere itunpeko gelen arabera. Gainera, nahitaez bete beharko dira ondorengo baldintzak:

- a) Diru-laguntzaren zenbateko osoak ezingo du biderketa honen emaitza gainditu: emandako ordu guztiak bider 20.000 PTA/orduko (120,20 euro/orduko).

- b) «Materialek» sortutako gastuei dagokien zenbatekoak ezingo du proposatutako diru-laguntzaren %20

Artículo 8.– La selección citada en el artículo anterior, será realizada por una Comisión creada al efecto y compuesta por:

- La Directora de Innovación Educativa o persona en quien delegue, que ejercerá la presidencia.

- El Inspector Central de Educación
- El Jefe del Servicio de Perfeccionamiento del Profesorado

- Tres técnicos/as nombrados por la Dirección de Innovación Educativa, uno de los cuales actuará como Secretario/a.

Artículo 9.– Dicha Comisión determinará las actividades de formación a subvencionar en cada una de las propuestas así como la subvención total a conceder, siempre teniendo en cuenta el baremo establecido en el anexo IV y las limitaciones tanto presupuestarias como las establecidas en los artículos 12 y 13 de esta Orden.

Artículo 10.– 1.– Antes de elevar la propuesta de resolución de la convocatoria al Viceconsejero de Educación, la propia Comisión podrá proponer las modificaciones que considere necesarias en las propuestas presentadas. La concesión de la subvención queda condicionada al cumplimiento y aceptación de las modificaciones introducidas.

Artículo 11.– Corresponde al Viceconsejero de Educación a propuesta de la Comisión resolver esta convocatoria dentro de los tres meses siguientes a la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La resolución definitiva se publicará en el BOPV y en ella se determinará la subvención concedida. Contra dicha resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En caso de no dictarse resolución expresa en el plazo establecido al efecto la solicitud se considerará denegada.

CAPÍTULO IV

CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN Y OBLIGACIONES DE LOS SUBVENCIONADOS

Artículo 12.– La cuantía global de la subvención asignada a cada Federación y/o Asociación se calculará mediante la suma de los presupuestos presentados para cada una de las actividades seleccionadas una vez deducida la cuantía correspondiente a las sustituciones, en función de las aulas concertadas, y siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

- a) La cuantía global de la subvención no podrá superar el producto resultante obtenido al multiplicar las horas totales impartidas por 20.000 pesetas/hora (120,20 Euros/hora).

- b) El total correspondiente a gastos en «Materiales» no podrá superar el 20% de la subvención total propues-

gainditu, behar bezala justifikatutako salbuespen kasuetan izan ezik, batez ere prestakuntza-jardueraren ezaugarri eta edukiak direla eta.

13. artikulua.– 1.– Ordezkapenen kostua kalkulatzeko erreferentzia gisa hartuko den modulua hau da: 100.000 pezeta irakasle eta ordezkapen-aste bakoitzeko.

2.– Ordezkapenetan erabiltzeko zenbatekoak ezin du gainditu emandako diru-laguntzaren %30. Hala ere, salbuespena egingo da dagokion prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten irakasleen espezializazioa edo eguneratzea oso premiazkoa bada.

14. artikulua.– Laguntza hauek ez dira bateragarriak beste erakunde publiko edo pribatuek helburu berearekin emandako beste laguntzekin.

15. artikulua.– 1.– Diru-laguntza hauek irakasle aktiboak ordezkatzeko, alegia, deialdi honetan onartutako prestakuntza-jardura bat burutzen ari diren irakasle horiek ordezkatuko dituzten langileak kontratzeko erabil daitezke, baita jardura horiek koordinatu eta dinamizatzeko lanak egiten dituzten irakasleak ordezkatzeko ere.

2.– Prestakuntza-jarduerak burutzen ari diren irakasleek ez dute ordainduko, ez matrikularik, ez materialik, ez ziurtagiri-gasturik, ezta ikastaroa egitearen ondorioz sortutako beste gasturik ere, bai, ordea, irakasleak prestakuntza-jardura burutzen den lekura joateko egindako gastuak.

16. artikulua.– 1.– Diru-laguntza eman zaiela jakinarazten zaien federazio eta elkarteek, dokumentazioa osatzeko, ondorengoa bidali beharko dute Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara, onartutako prestakuntza-jardura bakoitzerako: prestakuntza-jardueretan parte hartuko duten irakasleen zerrenda, horien NAN eta zentroa adieraziz (V. eranskina).

2.– Onartutako prestakuntza-jarduerak eta horien ezaugarriak jardura hasi baino hilabete lehenago arte aldatu ahal izango dira, behar bezala justifikatzen bada aldaketa eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari jakinarazten bazaio. Hain zuzen ere, proposatutako aldaketekin ados dagoela adierazi beharko du Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak.

3.– Onartutako prestakuntza-jardura bat arrazoiren batengatik burutzen ez bada, jardura horri esleitutako zenbatekoa diru-laguntzaren azken ordainketatik kenduko da, eta itzuli beharreko zenbatekoak ordainketa hori gainditzen badu, bi zenbatekoen artean dagoen aldea itzuli egin beharko da, 20.2 artikuluan ezarritako prozedura bidez.

ta, salvo excepciones debidamente justificadas, fundamentalmente por las características y contenidos de la actividad formativa.

Artículo 13.– 1.– El cálculo del coste de las sustituciones se hará en base a un módulo de 100.000 pesetas (601,01 Euros) por profesor y semana de sustitución.

2.– La cuantía destinada a sustituciones no podrá superar el 30% de la subvención total asignada, salvo excepciones que se fundamenten en necesidades urgentes de especialización y/o recualificación del profesorado participante en las actividades de formación correspondientes.

Artículo 14.– La concesión de las presentes ayudas será incompatible con la obtención de cualquiera otras que teniendo el mismo fin pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada.

Artículo 15.– 1.– Se podrán utilizar las subvenciones para la contratación de personal que sustituya al profesorado docente en activo para el período de tiempo en el que éste asista a una de las actividades de formación aprobadas en esta convocatoria, así como para sustituir al profesorado que realice funciones de coordinación y/o dinamización de las mismas.

2.– El profesorado asistente a las actividades de formación aprobadas estarán exentos de cualquier pago, ya sea éste imputable en base a concepto de matrícula, materiales, derechos de certificación o cualquier otro derivado de la realización del curso, con la única excepción de los derivados del traslado de los propios profesores/as asistentes al lugar de celebración de las actividades de formación.

Artículo 16.– 1.– Las Federaciones y Asociaciones a los que se les comunique la concesión de una subvención, y para completar la documentación existente, deberán remitir a la Dirección de Innovación Educativa y para cada una de las actividades de formación aprobadas, listado del profesorado cuya asistencia está prevista, con indicación del DNI y centro al que pertenece (Anexo V).

2.– Las actividades de formación aprobadas así como sus características, podrán cambiarse justificadamente hasta un mes antes de la fecha de inicio, siempre que se comunique a la Dirección de Innovación Educativa, quien deberá dar su conformidad a los cambios propuestos.

3.– En el caso de que una actividad de formación aprobada no se realice por cualquier causa, se detraerá la cantidad asignada a la misma del último pago de la subvención concedida y, de superar dicho pago, se procederá a la devolución de la cantidad que corresponda por el procedimiento indicado en el artículo 20.2.

17. artikulua.— Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da: lehenengoa, onartutako osoaren %30 izango da gehienez, eta deialdiaren ebazpenaren ondoren ordainduko da; bigarrena, %50 izango da gehienez, eta parte hartuko duten irakasleei buruzko datuak jasotzean ordainduko da (V. eranskina); eta geratzen dena, 19. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztean ordainduko da.

18. artikulua.— Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak jarraipen eta kontrolerako sistemak ezarri ahal izango ditu, baita beharrezkotzat jotzen dituen datuak eskatu ere; eta hori guztia, onartutako jarduera bakoitzaren helburuak eta emaitzak bermatzeko asmoz.

19. artikulua.— 1.— Diru-laguntza onartu zaien federazio eta elkarteek memoria bat aurkeztu beharko dute Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan, bi aletan, onartutako prestakuntza-jarduerak amaitu eta gero. Horretarako, prestakuntzarako azken ekintza amaitu eta hilabeteko epea edukiko dute.

2.— Memoriak ondorengoa jaso beharko du: diru-laguntza nola erabili den azaltzen duen balantzea, eta federazio edo elkartearen organo nagusienaren akta, balantze hori onesten duena.

20. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Printzipio Arautzaileen Legeak ezarritakoarekin bat, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan oinarrituz (1992ko otsailaren 17ko EHAA), diru-laguntza itzuli egin beharko da, aplikagarri izan daitezkeen legezko interesekin batera, ondorengo inguruabar hauetako bat denean:

a) Agindu honetan ezarritako edozer ez betetzea.

b) Onuradunek, EAEko aurrekontuaren kontura diren diru-laguntza horiek jasotzen dituztenek, dagozkien betebeharrak ez betetzea.

21. artikulua.— Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek beti bete beharko dituzte ondorengo betebeharrak:

a) Emandako laguntza onartzea. Diru-laguntzaren onarpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost egunetan entitate onuradunek ez badiote laguntza horri beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartutzat joko da.

b) Zertarako eman den diru-laguntza, helburu horretarako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari behar beste informazio eskuratzeko, deialdi honetako diru-laguntzak direla eta eskatzen zaion guztietan.

Artículo 17.— El abono de la subvención será efectivo en tres plazos, el primero, que ascenderá, como máximo, al 30% del total concedido, tras la Resolución de la convocatoria; el segundo pago de un porcentaje máximo del 50% , a la recepción de los datos referentes a asistentes previstos (Anexo V) y el % restante tras la presentación la documentación indicada en el artículo 19.

Artículo 18.— La Dirección de Innovación Educativa podrá establecer sistemas de seguimiento y control y/o pedir los datos que crea necesarios, todo ello con el fin de garantizar la finalidad y resultados previstos en cada una de las actividades aprobadas.

Artículo 19.— 1.— Las Federaciones y Asociaciones a las que se les haya concedido subvención presentarán en la Dirección de Innovación Educativa una memoria, por duplicado, una vez finalizadas las actividades de formación aprobadas y en el plazo de un mes a partir de la finalización de la última acción formativa.

2.— La memoria deberá incluir un balance económico que refleje la utilización de la subvención concedida, y el acta del órgano máximo de la Federación o Asociación en la que se apruebe el citado balance.

Artículo 20.— De conformidad con lo establecido en la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en base al Decreto 698/1991, de 17 de diciembre (BOPV de 17 de febrero de 1992) se procederá al reintegro de la subvención percibida más los intereses legales que resulten de aplicación cuando concurren alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que se incumpla de cualquier modo lo dispuesto en esta Orden.

b) Que se incumplan cualquiera de las obligaciones que competen a los beneficiarios de subvenciones con cargo a los presupuestos de la CAPV.

Artículo 21.— Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

V. KAPITULUA
ZIURTAGIRIAK

22. artikulua.— Onartu eta burututako jarduerak ofizioz homologatuko dira, 1998ko ekainaren 12ko Agindu bidez. Agindu horrek homologazio-prozedura ezartzen du (uztailaren 24ko EHAA).

23. artikulua.— Jarduerak burutzen dituen entitateak ziurtagiria emango die prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten irakasleei, aurreko artikuluan aipatutako Aginduan ezarritako baldintzetan.

CAPÍTULO V
CERTIFICACIONES

Artículo 22.— Las actividades aprobadas y realizadas serán homologadas de oficio y en virtud de la Orden de 12 de junio de 1998 por la que se establece el procedimiento de homologación (BOPV de 24 de julio)

Artículo 23.— Los profesores asistentes recibirán la certificación correspondiente emitida por la entidad impartidora, y en las condiciones indicadas en la Orden citada en el artículo anterior

I.ERANSKINA
PRESTAKUNTZA-JARDUERAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

Eskatzailea: NAN:
Eskatzaileak legez ordezkaten duena:
Helbidea: kalea/plaza
Posta-kodea: Telefonoa: Faxe: e-maila:

Eskatzaileak ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen dituela zentro pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei prestakuntza-jardueratarako diru-laguntzak emateko deialdia eta baldintzak.

Atxiki duela deialdian eskatutakoa betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Zentroen zerrenda eta harremanen dagokion egiaztapena
- Federazioari/Elkarteari eta eskatutako jardueri buruzko datuen laburpen-fitxa (II. Eranskina)
- Jardueren deskripzio-fitxa
- Zerga betebeharrak egunean dituela dioen egiaztagiria.

ESKATZEN DU:

Onar diezazkiotela prestakuntza-jarduerak burutzeko aurkeztutako diru-laguntza eskerak.

.....(e)n, 2001ekoaren(e)an

(sinadura eta zigilua)

SARRERA

Data:
Izenpea:
Zigilua:

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

II. ERANSKINA
LABURPEN FITXA

Federazioa/Elkartea Zentro elkartuen kopurua

DATU OROKORRAK

	Haur H	Lehen H	DBH	Batxil	PZ.	Beste batzuk
Itunpeko gela-kopurua guztira						
Irakasle-kopurua guztira						
Prestakuntza-jardueretan parte hartzen ari den irakasle-kopurua						

PRESTAKUNTZA JARDUEREI BURUZKO DATUAK

Ord zk.	Jardueraren titulua	Ko ¹	Maila ²	Orduak	Lekuak	AURREKONTUA					
						Irak.	Materialak	Joan-etorria	Ordezkoa	Besterik	GUZTIRA ³

¹ Ikasturtean zehar jarduera zenbat aldiz errepikatzen den adieraziko da.

² Ondorengo kodeak erabili: Haur H-1;Lehen H-2; DBH-3; Batxil-4; PZ.-5; Beste batzuk-6.

³ Aurreko partidaren batura bider «Ko» (kopurua) zutabeko zifra adieraziko da.

III. ERANSKINA
DESKRIPZIO FITXA

Jardueraren titulua Ord. zk.

Jarduera burutzeko datak: Hasiera Amaiera

Helburua

Edukiak

Faseak edota ordutegiaren egitura

Aurreikusitako emaitzak

Hartzaileen maila eta ezaugarriak

Eskolak eman ditzakeen entitatea

IV. ERANSKINA
JARDUEREN BALORAZIO TEKNIKORAKO BAREMOA

1.	Prestakuntza-jardueraren beharra, espezializazioa, eguneratzea eta Saileko lehentasunezko programak kontuan hartuz.	3 puntu arte
2.	Edukien egokitzapena, faseak edo ordutegiaren egitura, eta ikastaroaren helburua eta aurreikusitako emaitzak.	3 puntu arte
3.	Eskatutako aurrekontuaren egokitzapena	2 puntu arte
4.	Bekadun-kopurua itunpeko geletan	2 puntu arte

ANEXO I
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA ACTIVIDADES DE FORMACIÓN

D/Dña. con DNI
en calidad de Representante legal de la
sita en calle/plaza
Distrito postal Teléfono Fax e-mail

EXPONE:

Que conoce los términos de la Convocatoria de Subvenciones a Federaciones/Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con centros privados para la realización de actividades de formación.

Que adjunta la documentación necesaria para acreditar el cumplimiento de los requisitos exigidos en esta convocatoria.

- Listado de centros y la correspondiente acreditación de las relaciones existentes
- Ficha resumen de datos de la Federación/Asociación y de las actividades solicitadas (AnexoII)
- Fichas descriptivas de las actividades
- Acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias

SOLICITA:

Que le sea concedida la aprobación de la subvención de las actividades de formación presentadas.

En, a de del 2001

(firma y sello)

ENTRADA

Fecha:

Firma:

Sello:

ILMA.SRA.DIRECTORA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA

ANEXO II
FICHA RESUMEN

Federación/Asociación N.º de centros asociados

DATOS GENERALES

	Infantil	Primaria	ESO	Bachill	C.F.	Otros
Número total de aulas concertadas						
Número total de Profesores/as						
Números de Profesores/as en actividades de formación						

DATOS DE LAS ACTIVIDADES DE FORMACIÓN

N.º Ord	Título de la Actividad	N. ^{o1}	Niv ²	Horas	Plazas	PRESUPUESTO					
						Impartidor	Materiales	Desplazm	Sustitutos	Otros	TOTAL ³

¹ Se indicará el número de veces que se repite la actividad a lo largo del curso

² Utilizar los siguientes códigos: Infantil-1;Primaria-2; ESO-3; Bachill-4; C.F.-5; Otros-6

³ Se expresará el producto de la suma de las partidas anteriores por el la cifra de la columna «N.º»

ANEXO III
FICHA DESCRIPTIVA

Título de la actividad *n.º de orden*

Fechas previstas para su realización *Inicio* *Final*

Finalidad

Contenidos

Fases y/o Estructura horaria

Resultados previstos

Nivel y características de los destinatarios

Posible Entidad impartidora

ANEXO IV
BAREMO PARA LA VALORACIÓN TÉCNICA DE LAS ACTIVIDADES

1.	<i>Necesidad de la actividad de formación en relación con la especialización, recualificación y/o los programas prioritarios del Departamento</i>	<i>Hasta 3 puntos</i>
2.	<i>Adecuación de los contenidos, fases y/o estructura horaria, y, resultados previstos con la finalidad del curso</i>	<i>Hasta 3 puntos</i>
3.	<i>Adecuación del presupuesto solicitado</i>	<i>Hasta 2 puntos</i>
4.	<i>Número de becarios en el conjunto de aulas concertadas</i>	<i>Hasta 2 puntos</i>

